

# Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2001eko ekainak 8 • 215. zka.



**Gorputza zaindu  
eta edertu guran**

Iturririk iturri: M<sup>a</sup> Felisa Iturre • Iritzia: Lurdes Kintanilla • Kirolak: Triatloia



# Corsa Irabazleen belaunaldi berria

NORTE GARAJEAK, S.L.

**OPEL** 

Basabe Poligonoa A-13 20550 ARETXABAETA  
Tel.: 943 71 20 03 ● Fax: 943 77 16 20



**ILEAPAINDEGI**  
**ESTETIKA**  
**SOLARIUMA**

LORAMENDI, 10  
TEL: 943 77 01 26  
20550 ARETXABAETA



LOKATZA ETA  
MASAJE PERTSONALIZATUAK



BETILEEN TINDAKETA



DEPILAZIO ELEKTRIKOA

GORPUTZAREN BARNEKO FUNTZIO-  
NAMENDUA EGUNEROKO OHITURE-  
KIN ALDATUZ DOA, GEURE OSASUNA  
ETA EDERTASUNA HONDATUZ. L-10  
ESTETIKA ZENTRUAN, ZURE OSASU-  
NA ETA EDERTASUNARI IRTENBIDEA  
BILATUKO DIOGU.

ZATOK ETA PROBA EZAZU!

## Udalak txikizio batzuen inguruko kartia bialdu dau herritarrendako. Zeini dagokixo gai horren ardurie?



**Idoia Etxebarrieta**

Ez dauket ideia haundirik gaixen inguruen, baine udalak bialdutako kartan esaten dan moduen, gurasuek izen biheko lirakie arduradunek.



**Domi Lezeta**

Gaia delikaua da. Guri emutezkuen moduen, bere denporan emundako belarrizkiñakuek gauza asko konponduko littuzkie. Udalak ondo indau kartia idazten.



**Jose Angel Iturbe**

Udalak kartia idaztia ondo pentsau jat. Ume horrein arduria, barrez, gurasuek daukie lehenengo eta gero beste danok, irakasliek, herrittarrak...



**Mariasun Esteban**

Argi eta garbi dau, gurasuek daukie gazte horrein arduraik nausixena. Baiña udaletxiak be zeozer inbieko lauke.



**Maite Gonzalez**

Gurasuek hartu biheko littuzkie neurrixek. Hala ta be, niri etxat ondo pentsau, hola inoi ezer esan barik, kartia medixuetan agertzia.



**Iñaki Arana**

Nire ustien ez dau horrenbeste bandalismo, lehenau be pasetan zien hola-kuek. Arduria danok daukou, baina, ertzantzak be parte hartu biheko lauke.

## Aretxagazeta

215. zenbakia. 2001eko ekainaren 8an.  
Durana 11, 151 postakutxatila.  
ARETXABALETAKO.  
Tel: 943 79 86 21.  
Faxa: 943 77 18 54  
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

**Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

**Lehendakaria:** Edorta Mendieta.

**Erredakzio-kontseilua:** Mireia Uribebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre, Ana Hidalgo, Fernando Berrizbeitia.

**Erredakzio arduradun eta kazetariak:** Amagoia Lasagabaster, Iratxe Bengoa eta Mirari Altube.

**Publizitatea:** Ziortza Martin

**Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Rosa Del Aguilu, Amaia Berezibar, Murruxiko mendi elkarte, Zarala mendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

**Banatzaleak:** Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo, Leire Otaegi.

**Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk.  
Tirada: 1.500 ale.  
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.  
Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxabaletako Udala,  
Gipuzkoako Foru Aldundia eta  
Eusko Jaurleritzako kultura  
sailaren laguntzaz

## BALITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta



■ **COPRECİK ITALIAN ZABALDUKO DU ENPRESA BERRIA** Oraindik negoziaketan badabilza ere, aurki izango du Coprecik lantegi barria Italian. Helburua hango merkatu eta bezeroengana hobeto heltzea izango da. Horrela orainarte egin duen moduan, hemendik kanpo duen lehiakortasuna erakutsiko du Coprecik. Lantegi barria, gure herrikoaren osagarria izango da eta gutxienez 100 langile izango ditu. Horrez gain, Coprecik partehartzeren %50 baino gehiago izango du. Hemedik hamabostbat egunetara jakingo da zein enpresa hartu duen.

## Andramari auzuneko etxebizitzak aurrealdeak zaharberrituko dira

Andra Mari auzuneko etxebizitzak aurrealdeak egotera txarrean daudela eta bizilagunek konpontzeko erabakia hartu dute. Horretarako, udaletxera jo eta arkitekto baten laguntzarekin zaharberritzeko proiektua egin dute. Etxebizitzak inguratzen dituzten horma guztiak goitik behera zaharberrituko dira. Horrela, orainarte ziztuzten

hezetasun arazoak konpondu gura dituzte besteak beste.

Udalak dagoeneko Gas-teizko IDHECO enpresari eman dio lanak egiteko ardura. Lanak hilabete honetan bertan hasi eta 2 urtez luzatuko dira. Aurrekontuari dagokionez, 143 milioi pezetakoa da. Zati bat udalaren laguntzaz ordainduko dute bizilagunek.



## ABIADURA HANDIKO TRENAREN AURKA MOBILIZAZIOAK

Abiadura Handiko Trenaren kontra eta Euskal Herriaren horren inguruan aurreikusten diren proiektuak gelditzearen aldeko manifestazioa deitu du AHTa Gelditu! Elkarlanak hurrengo ekainaren 16rako. Bitartean, gure bailaran konzentrazioak egingo dira. Datorren astelehenean, arratsaldeko 19:30an egingo dira kale bilkurak Arrasaten eta Bergaran. Arrasaten, Eroskiko biribilean egingo da, Bergaran, aldiz, barianteko zubian.

Donostiako manifestazioara joateko, autobusak antolatu dituzte arrasateetik. Apuntatu gura duenak, Biona, Irati edo Jai-zale tabernan eman dezake izena. Autobusak, ekainaren 16an arratsaldeko 16:00etan irtengo dira Abaroako geltokitik.


INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

**RKLI**

**URKULU, S.L.**

Mitarte, 23  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

**HAURRAK**



**UMEENDAKO MODA**

Lezama merkatal  
zentrua, 15  
943 77 14 86

**DOIKALSE**  
**Elektroerosio lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 82 44

**PAGALDAI**

*Opari denda  
Lurrindegia*

**Durana, 33 ☎ 943 79 10 14**

**Gemes** estetika zentrua

**UDABERRIKO ZAINKETAK**

- Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza
- Depilazioa argizari beroaz eta hotzaz. Dekolorazioa
- Behin betirako makilajea bekain eta espainetan
- Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongaiak...
- Azalaren garbiketa
- Ordezko azazkalak
- Pedikura
- Dieta pertsonalizatuak
- Betileen tindaketa
- Solarium-a

Durana, 40 2 - ARETXABALETA Tel.: 943 79 99 18

## KANPOKO IGERILEKUAK EGITEKO SINADURA BILKETA

Kurtzebarri eskolako 4. mailako ikasleak, kanpoaldeko igerilekuak egiteko sinadura batzen ari dira azken egunotan. Herriko komertzio eta kalean aritu dira lana egiten, eta herri-ugariren sinadurak batu dituzte honazkerok. Bilketa egin ostean, udal-txean aurkeztuko dute beraien eskaera. Neska-mutil hauek, igerilekuak kokatzeko lekua ere pentsatu dute. Kiroletxe parean dagoen zelai zabala aprobetxatzea da heuren proposamena.

## ZINE ARETO BARRIAREN BEHIN BEHINEKO AURKEZPENA


Astlehenean egindako gobernu batzordean erabakitakoaren arabera, zine areto barriaren behin behineko proiektua aurkeztuko zaie herriko kultura talde desberdinei. Proiektua honek, 331a lagunentzako zine eta antzerkiko aretoa, eta beste erabilera batzuetarako gelak aurreikusi ditu. Kultura talde desberdinek esandakoaren arabera balorazio bat egingo da, baina oraindik ez dago eraikinaren behin betiko proiekturik.

## Obra gehiago egiteko proiektuak

Joan den astlehenean egindako osoko bilkuran obra gehiago egiteko proposamenak onartu ziren. Batetik, herriko plazan dagoen udaletxe zaharraren behin betiko lagapena egin zen. Horren arabera, hemendik aurrera Eusko Jaurlaritzak izango du eraikin horren ardura. Diputazioaren asmoa, oraingo eraiki-


na bota eta eskolak emateko egoitza barri bat eraikitzea da.

Bestalde, bilkuran erabakitako beste gai baten arabera, Loramendi eta Araba Ibilbideko hainbat etxebizitzaren azpiegiturak berritzea onartu du udalak. Loramendin 2. eta 4. zenbakian eta Araba Ibilbideko 26 eta 28an egingo dira lanak.



## Ziortza Martin lan-kide berria

Ziortza Martin Bergararra dugu Aretxagazetako komertzial barria. Orain arte, Iratxe Bengoak egiten zuen lana hartu du. Beraz, hemendik aurrera, Ziortza joango da komertzio eta enpresetara publizitate eskaintzak egitera. Iratxek, Aretxagazetako erredakzioan jarraitu arren, Goienan ere administrazio lanak egingo ditu.



## ARTXIBO HISTORIKOA GALARTZAN JARRI DA

INDOK enpresa urtebetez aritu da herriko artxibo historikoa antolatzen. Artxibo hau, udaletxearen ganbararen zegoen, baina dirudienez ez zen leku egokiena. Izan ere, han hezetasun handia dago, eta ura sartzen da gainera. Horrez gain, udako bero izugarriek eta neguko hotzek hozberoa sortarazten dute eta horrek, papera ondatzen duten mikro organismoak sortzen ditu. Horregatik, orain artxibo historiko guztia Galartza-ko dorretxean jartzea pentsatu du udalak. Horretarako, 3 milio balio dituzten armairu espezialak erosi dira.

Artxibo historikoan dagoen dokumenturik zaharrena 1498. urtekoa da. Politena aldiz, Felipe IIak Leintz Bailarari Oñatiko Kondearen kontra egiteko, idatzitako agiria da.


# G U R E A

taberna  
jatetxea

Durana kalea  
Tel.: 943 79 20 64

# ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzuan  
Tel.: 943 79 88 95  
MANTEKA ANAIK




# TXILARRA

## ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15  
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44 28

## ■ LURZORUAREN

**AZTERKETA** Orain astebe- te inguru, kiroletxe pare- tik Lausita kaleraino dijo- an erreka bestaldeko ze- laietan ikerketa geo-tekn- ikoak egin ziren. Azterketa, hango lurrek harria azaldu arte zenbat geruza dituz- ten jakiteko egin da. Guz- tira, 23 zulo egin dituzte langileek. Udalak eginda- ko azterketa hauen helbu- rua, zonalde horretako plan partziala burutzea izan da. Udalak, joan den urtean onartutako arau subsidiarioen arabera, ze- lai horietan 345 etxebizi- tza egin gura dira. Hori- etatik, %60a babes ofizia- leko etxebizitzak izango litzateke, gainera.



Euskaldunentzako nortasun agiri bakarra bultzatu nahi da du taldeak

## NANa ez erabiltzeko mozio eskaera onartu du udalak

Astelehenean egindako oso- ko bilkuran onartu zuen Aretxabaletako udalak Nor- tasun Agiri Nazionalaren erabilera deuseztatzeko es- kaera. Autodeterminazioa- ren Biltzarrak-en proposa- menez etorri zen eskaera, eta azken aldian egiten ari diren burujabetzaren alde- ko desobedientzia zibileko kanpainaren barruan koka- tzen da. Aretxabaletan, he- rri ekimen baten bitartez egin da eskaria. Idatzian, udaletxean bete beharreko

inprimakietan NANa ez era- biltzea eskatzen zen. Izan ere, talde honen ustez, nor- tasun agiri honek ez ditu Euskal Herriaren eskubide politiko eta zibilak haintzat hartzen. Onartutako eskae- raren ondorioz udalak NAN zenbakiaz bete beharreko laukitxoak kenduko du inpri- makietan. Hala ere, legeak eskatzen dituen izapidee- tan, hala nola, errolda edo zerga agirietarako, beha- rrezkoa izango da oraindik ere NAN zenbakia.

**GAZTETXEAN ORAINDIK ERE KONPONBIDE BILA** Azken hilabete hauetan gaztetxearen inguruko bat- zar ugari egin dira. Ho- rietan, tabernaren eta or- dutegien inguruan hitze- gin dute. Aste honen ha- sieran, gainera, gaztetxea- rentzako ordutegi barria adostu zuten gazteek, eguadiako 12etatik gauerd- irarte. Horrez gain, tabe- rna zabaldu ahal izateko zerbitzarien funtziona- mendu berria jarri dute. Hauek izan dira besteak beste, gaztetxearen ingu- ruko batzarrek eman du- ten lehenengo fruituak. Hala ere, erabaki hauek jakinarazteko kalean kar- telak jarri dituzten arren, oraindik ez da inor uda- lera joan. Hori dela-eta, uda- lak aste honetan, apirilean gaztetxea zabalik gelditu zedin jarritako baldintzak betearazteko exijitu die eskutitz bidez. Beraz, ta- berna itxita edukitzea eta gaueko 10etan gaztetxe- ko atea ixteko agindua dute.



**REGIODO**

**optika**

Loramendi, 10  
☎ 943 79 98 21

**BASABE**

**jatetxea**

Basabe bidea z/g  
Tel: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

**M**

**MEMESA**


**Industri hornidurak**

Tel.: 943 71 24 11  
Fax: 943 71 21 19  
ARETXABALETA

**Mobiliario**  
**ARENAZA**

· ALTZARIAK  
· DISEINUA  
· APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



## SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTRUA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentrua - Santa Kurtz, 24  
20550 ARETXABALETA -Tel.: 616 965 795

UNITED COLORS  
OF BENETTON.





## ■ BERTSO AFARIA LARRIÑON

Barre ugari egin zuten joan den asteburuan Larriñuko elkartean afaritara batu ziren lagunek. Jokin Solozabal eta Jon Maiaren bertsoekin gozatzeaz gain, Alberto Mondragonek gertatutako afariarekin ere majo gozatu zuten. Afarian presoak eta hauen senitartekoak izan ziren gogoan.

## ■ URKULUKO ARGENTINARRAK

Eskumako bikote honek Atlantiar ozeanoa zeharkatu zuen gure herrira etortzeko. Maria Angelica Uribechebarria eta senarra, Jorge Silvestre, Argentinatik etorri ziren. Andrearen abizena ezaguna da gurean. Izan ere, bere arbasoak hemen jaiotakoak ziren, Urkulu baserrian hain zuzen ere. Maria Angelicak gogo handia zeukan bere amonaren jaioterrira ezagutzeko eta horregatik etorri ziren. Izugarri gustatu zitzaizkien inguru hau, eta familiartekoeekin ere egon ziren.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

### Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

Aretxagazetarako lan poltsa osatzeko **BANATZAILEAK** behar ditugu.

Deitu 943 79 86 21 telefonora edo eta Durana, 11tik pasatu zuen izena emateko

ARGAZKI DENDA

**UrKiola**

Herriko plaza, 5-behea  
Tel.: 943 79 39 20

Estudioa  
Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Argazki digitalekin lanak

Albunak  
Argazki kamarak  
Markoak...

**LEIBAR**

arrandegia

Mitarte Kalea, 1  
Tel.: 943 77 13 79





## ■ MACHALUTIK EUSKAL HERRIRA

Maiatzaren 24an aurkeztu zen herrian Felix Iñurrategi mendi eskolaren proiektua. Lan horretan, anaia Alberto, Jon Lazkano eta Foru aldundiko ordezkaria den Julian Gomez ibili ziren. Beraiekin batera, Machulutik etorritako goi mendietako bi garraiolari ere egon ziren: Mohamed Ibrahim eta Rustam Ali. Azken bi gizon hauek mendiko tekniken eta segurtasun neurrien inguruko ikastaroa jaso zuten hemen.



## ■ EGUZKI ALDEKOAK TXAPELDUN

Urtero moduan elkarte arteko mus txapelketa jokatu da. Sei elkarreetako bina pareja aritu ziren Murualden aurrekoan txapela nork lortuko burrukan. Ondo kostata, baina azkenean Eguzki aldeko Roberto Egia eta Juanjo Muñoa izan ziren irabazleak. Bigarren Ibai gainekoak gelditu ziren, Jesus Andres eta Carlos Carretero. Antolatzaileek txapelketan egon den giro ona azpimarratu gura izan zuten.

*Okindegia - Gozologia*

**Aretxabaleta**

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta  
Bertako okina

**Apotzako  
San Migel  
merenderoa  
alokatzen da**

**943 71 49 96**

**Aretz**  
taberna

Markole, 5  
Tel.: 943 79 20 14

## Selektibitatea kentzearen alde?

Bigarren Goi Batxilergoa egin duten ikasleentzat, selektibitateko aurreneko froga ekainaren 13,14 eta 15ean izango da.

Ikasleentzat froga hau nahiko gogorra izaten da; alde batetik kurtso honetan landutako, bai modalitatezko eta baita amankomunak diren ikasgaien azterketak ere egin behar izaten dituztelako; beste aldetik, emaitzek duten garrantziagatik unibertsitatean sartzeko eskatzen duten notaren % 40a jokoan dagoelako. Gainontzeko % 60a Goi batxilergoko agirian lortzen duten notekin osatzen da.

Hau dela eta uler dezakegu euren kezka eta beldurra etorkizunerako aukeratu duten eskolan edo fakultatean sartzeko behar duten gutxienezko nota lortzen ez badute.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar selektibitatea unibertsitatean sartzeko derrigorrezko bidea dela. Baina gure ikasleek diplomatura edo lizentziatura ikasketez gain badute beste aukera bat ere. Gaur egun esaterako lanbide heziketak hainbat arlotan espezializatzeko aukera eskaintzen du.

Oraingoz selektibitatea egin beharra dago unibertsitatean sartzeko. Hala ere azken berrien arabera PPren asmoa sistema hau aldatzea da. Gobernuak honen ordeaz goi batxilergoko titulua lortzeko errebalida bat jarri nahi du. Horrez gain fakultate bakoitzak beste froga bat jarriko du bertan ikasi nahi duten ikasleentzat.

Honek ikasleak egin beharreko froga kopurua gehituko du. Bide batez, eskatutako ezagupenak zehatzagoak izango dira, izan ere, errebalidan lehen eta bigarren mailako ikasgaiak sartuko dira. Era berean, fakultatean ikasleari ezapen zehatzagoak eskatuko zaizkio.

Horregatik nire iritiz hobe dugu daukagun sistemarekin jarraitzea, ezagutzen duguna ez delako ezagutzen ez duguna baino okerragoa pentsatuz.

Dena dela, ez kezkatu, jaiotze tasa nabarmen jaitsi denez, atek irekita izango dituzue fakultate gehienetan.

Lurdes KINTANILLA



GARBITU S. KOOP

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

Tfnoa.943 79 31 87

OSKAR  
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4

*Lie*

LURRINDEGIA  
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59

*Hemen jaio arren lau urterekin egin zuen alde Argentinara Maria Felisa Iturrek. Ordutik denbora dexte pasa da, eta orain bere semearekin batera itzuli da herrira. Dena ondo joanez gero, hementxe geldituko da gainera bizitzera.*



## Maria Felisa Iturre

### Argentinatik etorritako herritarra

#### ■ Non jaiotakoa zara zu?

■ Nire ama Donostian bizi zen, baina haurdun gelditutakoan, Aretxabaletara etorri zen haurra izatera. Beraz ni hementxe jaiotakoa naiz, Otalora kalean etxebizitza batean.

#### ■ Zergatik joan zineten Argentinara?

■ Nik lau urte nituela joan ginen Argentinara, duela berrogeita hamar urte gutxigorabehera. Orduan hemen oso egoera txarra zegoen, gerra pasatu ostean goseak jarraitzen zuen. Argentinak aldiz historian izan duen egoera onena bizi zuen, joan eta berehala aurkitu zitekeen lana.

#### ■ Nolakoa da hango bizitza?

■ Ni Wilde izeneko hirian bizi izan naiz Argentinan.

Nire ama aldiz Berasategi herrian bizi da. Hango lurrak oso lehorrak dira.

#### ■ Lehenago ere hemen izandakoa zara, nola aurkitu duzu herria?

■ Argentinara joanda gero, 18 urterekin etorri nintzen lehenengo aldiz, orduan kale bakarra zegoen herrian. Bigarren aldiz, semeak bi urte zituela etorri nintzen eta ordurako bazihoan herria forma hartzen. Baina oraingoan, guztiz aldatuta aurkitu dut guztia. Ia ezagutu ere ez dut egin herria.

#### ■ Zergatik itzuli zara orain?

■ Argentinako egoera gaur egun gaizki dago. Langa-bezi handia dago eta enpresa ugari ari dira ixten. Horren ordez, merkatal

zentruak ari dira zabaltzen edonon, baina diru barik inork ez du denda horietara erosten joateko ahalmenik. Menem moduko presidentek urte luzez ibili dira ahal zuten diru guztia lapurtzen. Egoera politikoa oro har nahiko usteldurik dago gaur egun ere. Denek borrokan egiten dute boterera iristeko eta gero gure kontu aberasten dira.

#### ■ Zein desberdintasun dago hango eta hemengo jendearen artean?

■ Orain ez dut horren diferentzia handirik aurkitu; Baina lehenago hemengo jendea oso itxia eta serioa zen. Argentinarrak aldiz irekiagoak gara aspektu guztietan. Hala ere, orain, esan bezala, oso aldatuta ikusi dut hemengo jendea. Gazteak batez ere, oso ire-


kiak direla esaten dit jendeak.

#### ■ Argentinan zeundela beste euskaldun batzuekin egoten zinen?

■ Bai, nire amak batez ere, hemendik hara joandako etorkinekin oso harreman estuak ditu. Nire ama Argentinara joandako lehenengo etorkinetakoa izango da. Horrela, gerora hemendik joandako euskaldun asko bere bitartez joan zieren.

#### ■ Euskaraz badakizu?

■ Nire amak bazekien euskaraz, baina nire aita Tuterakoa zen eta harekin beti gazteleraz egiten zuen. Argentinan geundela, osaba batekin egiten zuen euskaraz, nirekin aldiz, beti egin du gazteleraz. Beraz, ez du sekula euskara ikasi.



# Gorputza biluzteko prestatzen

*Ekaina ailegatu da eta berarekin eguzkia eta beroa. Orain urtetxo batzuk, ez hainbeste, baserritarrak goitik behera jantzita egiten zuten lan soroan eguzkiak ez zitzaaten belztu. Gero, barrukaldean bizi garenok kotxea hartu eta kostaldera ihes egiten hasi ginen gure gorputz zuriei kolorea eman guran. Gaur egun ere kolorettoa hartzearen kalenturak bete-betean jarraitzen du, orain, ostera, gorputza*

Antzinako jakinduriak dio gorputzak itxura ona izan dezan barrutik zaindu behar dela, eta jakin, denok dakigu hori, orain bete... beste kontu bat da. Eguzkia berotzen hasten denean eta arropak kendu behar direnean gogoratzen gara urte guztian ez dugula ezer egin gorputza zaintzeko eta iletzoz beteta, zuri-zuria eta behar baino kilotxo batzuk gehiagorekin daukagula. Ai ama, zer egin orain? Eder-tze aretora jo eta euren

eskuetan jarriko gara mirari baten zain.

**Depilazioak eta zelulitisa**  
Sole Martinez bergararra orain hamabi bat urte hasi zen lanean edertze aretoan eta urte eta erdi ingurutik Aretxabaletako L-10 estetika zentruan dabil. Zerbitzu ugari eskaintzen baditu ere momentu honetan eta udara begira depilazioak eta kiloak kentzeko tratamenduak dira gehien eskatzen dizkietenak. Depilazioen kasuan, argizari

*biluztu aurretik sasoian egotea gura dugu, sasoian eta kolorea hartuta gainera.*

*Aste Santu aurtxoan hasten dira edertze aretoak betetzen, aste santuko oporretan joan aurretik gorputza prest jarri guran. Depilazioak, dietak, zelulitisa kentzeko tratamenduak, liftingak... eta nola ez solariumeko saioak arropa kendu aurretik kolore beltzarena izan dezagun.*

beroa da oraindik gehien erabiltzen dena, baina hotza edo erabili eta bota egiten dena ere gero eta gehiago eskatzen da. Depilazio elektrikoa ere bada go baina oraindik mingarria denez gutxiago erabiltzen ei du jendeak "hala eta guztiz gero eta lagun gehiago animatzen da sistema hau erabiltzera, epe luzera, bi urte ingurura, emaitza hobea lortzen da eta" dio Solek.

Kiloak kentzeko dietak jarraitzen ditu jendeak eta



ondoren gorputzaren itxura hobetzeko zelulitisa kendu gura izaten du. Solek, gorputzaren itxura hobetzera datorrena lehenengo aztertu egiten du: nola elikatzen den, kirolik egiten duen... ikusi eta ondoren berari dagokion tratamendua ezartzen dio. Zelulitisa kentzea ostera, ez da lan samurra "disimulatu egiten da duda barik, azala leunduz, baina estetikako tratamenduez kendu ez da kentzen" dio Solek.

### Solariuma beteta

M<sup>a</sup> Karmen eta Xeli Etxeandia ahizpek ere aspaldi jarri zuten Gemes edertze aretoa. Bertatik atxabaltar ugari pasatzen da urte guztian baina garai honetan gehiago. M<sup>a</sup> Karmenen esanetan eguzkia berotzen hasten denean aurpegiarekin ahaztu eta gorputza besterik ez dugu ikusten, kolorea hartzea eta arropak kentzeko gorputza itxuran izatea dira lehentasunak. Depilazioez gain, solariuma eta zelulitisa kentzeko termestimulazioan oinarritutako tratamendu berria dira eskatuenak. "Oso harrera ona izan du teknika berriak, momentu honetan esate baterako, gaizki ibiliko ginatete pertsona barri bati txanda emateko" dio M<sup>a</sup> Karmenek. Solariuma ere ez da atzera geratzen. Goizean goiz hasi eta ilunkara bitartean hogeit eta bost bat lagun pasatzen dira egunero.

### Mutilak ere gero eta gehiago

Gero eta mutil gehiago dira depilatzerak eta solariumera joaten direnak. Batzuk kirola egiten dutelako kendu gura izaten dituzte ileak eta beste batzuk, bizkarrean eta ohiko lekuetatik kanpo dituztenak, itxura zaintzeko egiten dute. Hala eta guztiz oraindik erreparatu apur bat ematen die edertze aretoetara joatea eta kirola egiten duten gimnasioetan geratzen dira. "Bai, bizikletan ibiltzen diren mutil batzuk badatoz depilatzerak, baina betikoak. Nik badakit gehiago direla ileak kendu edo solariumera joaten direnak, baina oraindik ez dira hona etor-



**"Lo behar beste egitea, ondo elikatzea eta kirolen bat egitea da gorputza zaintzeko modurik egokiena"**

tzen ausartu" dio M<sup>a</sup> Karmenek.

### Azken orduko mirariak


Orain hamabost urte Etxeandia ahizpak lanean hasi zirenetik gauzak asko aldatu dira. Izan ere estetika diru kontua ere bada eta momentu honetan diru gehiago mugitzen da gure herrian. Jendea ezkontza baterako asko gertatzen bada ere, tratamenduak egiteko orduan ez dela hain ausarta diote ahizpa hauek: "Momentu honetan jende asko dabil lanean eta dirua ere badauka, baina aldi berean denbora falta zaio eta estresatuta bizi da. Dirua izanez gero behintzat, mezezi du itxura hobetzen saiatzea norberaren estimua altxatzeko bakarrik bada ere".

Estetika arloan ohikoa izaten da berehalako emaitzak ikusi gura izatea. Hau, osterak, ezinezkoa da. Estetikako tratamenduen denbora eta jarraipena behar dute, beraz, udara begira mirari bila doana berandutxo dabil. Egokiena tratamendurekin negu inguruan hastea da, patxadaz eta emaitzak ikusteko presa barik. Horrela erropa kendu gura denerako gorputza sasoian egongo da. "Behin eta berriz esatearen puruz jendea badao konturatzen azken orduan ezin dela etorri mirari bila" dio M<sup>a</sup> Karmen Etxeandiak. Hori bai, tratamendua egin ostean mantendu beharra dago eta ez urtean behin gogoratu. Aholkua emateko orduan bat datoz Sole eta M<sup>a</sup> Karmen: "Gorputza zaintzeko ezinbestekoak dira behar beste lo egitea, ondo elikatzea eta kirolen bat egitea".



Mendia

Alberto Iñurrategi astean abiatu da Pakistanera. Ekainaren 5ean abiatu zen Alberto Iñurrategi, Jon Beloki eta Jon Lazkanorekin batera Pakistango Karakorumen dagoen G-I tontorre-rako bidean. Tontor hau da Albertori 14 zortzi milakoe-tatik burutzeko falta zaion bi mendietatik bat. Uztai-laren 30ean itzuliko da lan taldea etxera, eta dokumental eta programa berezi bat prestatuko dituzte irudi onenekin. Zorte on!



Xakea

Xake jokariak Beasainen bigarren. Fran eta Andoni Miguel, Esteban Romero eta Aitor Alcaide bigarren izan ziren Beasaineko xake azkarreko txapelketan. Groseko taldekideak ezin izan zituzten gainditu, eta ondorioz hauen atzean sailkatu ziren. Ekainaren 17an, bestalde, Tolosara joango zaizkigu San Juanetako txapelketan parte hartzera. Maila handiko txapelketa izango den arren, aurrean gelditu gura du laukoteak.



Pilota

Herri arteko pilota txapelketa hasiko dute pilotariak. Zapatuan ekingo diote herri arteko pilota txapelketari herriko pilotariak. Lehenengo partidua Azpeitian izango dute, eta kadete, jubencil eta nagusiek jokatuko dute. Iaz herriko taldea hirugarren gelditu zenez, aurten beranduago hasi dira txapelketa jokatzen. Gaueko 22:00etatik aurrera izango da partidua Azpeitian eta gero bueltakoa jokatuko beharko dute etxean.



Futbola

Kurtzebarriko neskak Gipuzkoako bigarrenak. Gipuzkoako futbol 7ko txapelketako bigarrenak izan dira Kurtzebarri eskolako infantil mailako neskak. Finala Lezoren aurka jokatu zuten Donostiako Matigoxotegi futbol zelaian, eta emaitza 1-0koa izan zen lezotarren alde. Opari moduan pasaden astebukaeran gurasoek eta alabek elkarren arteko partidua jokatu zuten Ibarra futbol zelaian. Neskak 7-6 nagusi izan ziren.

## Merezitako omenaldia jaso zuen Pako Iriondok domekan

Giro polita izan zuten domekan Pako Iriondoren omenaldian bildu ziren lagunek. Herriko plazan Angel Bergaretxe alkatearen agurrarekin hasi zen ekitaldia. Ondoren, mendiarekin lotutako hainbat ezagunen txanda izan zen, gaur egungo Euskal mendi federazioko lehendakariak hitz batzuk egin zituen, eta baita beste pertsonai ezagun batzuk ere. Garai

bateko Kostaldeko mendi taldeetako ordezkariak eta Lizaso eta Mendizabal bertso-lariak ere ez zuten hutsik egin aurrekoan.

Bildutako guztien ahotik hainbat opari eta hitz goxo jaso zituen Pakok urte luze hauetan mendiaren alde egin duen lan haundiagatik.

Ekitaldiaz ondo amaitzeko bazkaria izan zuten batutako guztiek Iturrigorri frontoian.

### ■ HECTOR PRIETOK ESPAINIAKO TXAPELKETAN URREZKO DOMINA

Joan den astebukaeran Katalunian jokatu den elbarrituen txapelketan izan dugu Hector Prieto, eta urrezko dominaz itzuli da etxera. Hector beste bi taldekideekin batera aritu zen lehiaketan eta estatuko onenak direla erakutsi zuten. Beste taldekideak Yolanda Martin donostiarra eta Santiago Pesquera iruñarra dira. Zorionak hirurei eta jarraitu horrela.

### ■ TXARTEL MANKOMUNATUA BERRIZ MARTXAN DA KIROLETXEAN

Ekainaren 1etik 5era bitartean txartel mankomunatua kiroletxean balio barik izan ondoren, barriz ere erabiltzeko aukera dago. Txartel honen bidez Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako kiroletxeetako abonatuak gainontzeko herrietako kirol zerbitzuak ere erabiltzeko aukera dute.



### ■ KARATEKAK BIKAIN ARITU ZIREN OÑATIN

Orain aste bi ospatu zen Oñatiko karate txapelketan izan genituen herriko karatekak. Herritik hamairu taldekide izan genituen bertan, eta lan txukuna egin zuten. Alex Justel karatekaren lana aipatzekoa da, alebinetan lehena izan baitzen. Beste batzuk ere aurreneko postuetan gelditu ziren. Aurre benjaminetan Odei Vazquez hirugarren izan zen eta David Gimbert laugarrena. Josu Cid bigarrena izan genuen benjamin mailan, eta Daniel Sanchezek bostgarren bukatu zuen. Miriam Santatere-sak ez zuen zorte bera izan, gerriko marroiekin lehiatu behar izan baitzuen.



Pako Iriondo eta bere emaztea eta Mendizabal eta Lisazo bertso-lariak

Oier eta Josu Arrasate triatloi taldeko kideak ditugu. Bihar bailaran egingo den triatloia antolatzen ibili dira, eta hori gutxi balitz triatloian parte ere hartuko dute. Proba bukatzea dute helburua, eta dena ondo joan dadin espero dute.

### ■ Zer dela eta bailaran triatloi karrera?

■ Oñatin duatloia egin izan da, baina aurten ez zuten antolatzeko asmorik. Beraz, geuk antolatzeko pentsatu genuen, hasiera batean duatloia. Gero federazioko arduradunak triatloia egiteko ideia bota zigun. Urkulun egin genezakeela jakin genuenean, triatloia antolatzeko politagoa izango zela pentsatu genuen.

### ■ Zer suposatu du proba antolatzek?

■ Joan den abenduan hasi ginen lehen pausoak ematen. Zailena milioi bateko aurrekontuari aurre egiteko sponsorrak bilatzea izan da. Alde horretatik jasotugun laguntzengatik oso pozik gaude.

Bestetik, beste leku batzuetako ideiak hartu ditugu, eta gurera moldatu.

### ■ Duatloien probak amaitu barri dira, eta hauxe izango da lehen triatloia Euskal Herrian.

■ Bai, hala da. Hemengo izango da lehena, eta gero

## Oier Etxebarria eta Josu Izagirre

### Biharko triatloirako dena gertu dago



Zarauzkoa, Donostiakoa, Lekeitiokoa... etorriko dira. Besteetarako gertatzeko egokia izango da.

### ■ Sasoi honetan ura hotza egongo dela eta, neurriak ere hartu dituzue.

■ Bai, ura oraindik ere hotza dago, nahiz eta egun honeitan berotuko zen apur bat. Donostiako dena batean neoprenoak alokatu ahal izango dira. Kontuan izan behar da erosteko oso garestiak direla.

### ■ Zelako partaidetza espero duzue?

■ Entzun dugunaren arabera bailarako jende dexente animatuko da, gainera, sekula duatloi edo triatloirik egin ez dutenak ere bai.

Normalean kirola egitera ohituta dagoen pertsona batek, probarako apur bat gertatuz gero ez luke arazorik izan behar. Zarautzekora joateko asmoa dutenak ere etorriko direla uste dugu. Oso goitik botata 200-250 bat partehartzaile espero ditugu; hirutik bat federatuak.

### ■ Zein ezaugarri izango ditu probak?

■ Distantzia olinpikoa du. Igerian 1500 metro, gero bizikletan 40 kilometro eta azkenik 10 kilometro korrika. Igerikoa Urkulun egingo da, bizikletakoa bailaran eta korrikakoa Arrasaten zirkuito itxi batean.

### ■ Biok parte hartuko du-

zue proban, zein helbururekin?

Oier: Nik bukatzea izango dut helburua. Oñatiko muttil batek desafioa bota zidan, berak nire aurretik bukatuko zuela eta bere aurretik bukatu gurako nuke. Josu: Karrera hemen denez igeri eta bizikletako proba behintzat egingo ditut. Gero ikusiko dut korrikakoa egingo dudala ala ez, lesio txiki bat daukat eta.

### ■ Zein da hiru kiroletatik gogorrena zuentzat?

O: Korrikakoa azken proba denez, bertan sufritzen da gehien. Hala ere, korrikan hobeto ibiltzen naiz, igerian eta bizikletan baino.

J: Ni bizikletan moldatzen naiz egokien. Triatloian igerian eta korrikan antzematen da mailarik onena. Nik, barrez, bizikletan ateratzen dut abantaila.

### ■ Bukatzeko, ikusleentzat zein izango da leku egokia karrera ikusteko?

■ Urkulun Korueta ingurua leku aproposa da. Igeri proba ikusteaz gain, bizikleta probaren hasiera ikus daiteke. Gero Untzilan Aramaio aldetik txirrindularien igoera ikustea ere interesgarria da.

## JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte, ☎ 943 77 03 08

## IBARRA estankoa

PRENTSA ETA  
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

## Jauregi Okindegia

Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47

## BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak  
eta mortzilak

Durana, 9  
Tel.: 943 79 19 79

*Maiatza bukatzeaz zegoela hasi zen lanean udaleko zerbitzuetako langile berria. Beraz, lau izango dira hemendik aurrera. Aurretik kaleak garbitzen eta Eskoriatzako udalean lanean ibili ostean, ilusioz hasi da herrian lanean badaki eta asko ikas dezakeela. Momentuz sei hilabeterako lana da eta gero ikusi egin behar.*

## Manuel Marrupe

### "Lan honetan asko ikas daitekeela uste dut"



#### ■ Zenbat urte dituzu?

■ Hogeita bederatzia.

#### ■ Nola aukeratu zaituzte lan horretarako?

■ Lau aurkeztu ginen eta lorazaintza eta igeltseritzaren inguruko azterketa egin ziguten.

#### ■ Aurretik non ibili zara lanean?

Eskoriatzako udalean nenbilen azterketara aurkeztu nintzen eta aurretik kalegarbitzaile lanak ere egin ditut bi urtetan.

#### ■ Zein izango da zure bete beharra?

Orokorrean kalean apurtutakoak konpontzea: baldosak konpondu, bedarrak kendu, trafikoko-seinaleak jarri...

#### ■ Gaur esate baterako zertan ibili zara?

■ Arkarazon egon gara hodi batek ura galtzen zuela eta berau konpontzen.

#### ■ Gustukoa duzu lana?

Bai, lan honetan asko ikas daitekeela uste dut inoiz egin bako lanak egitea tokatuko zait eta. Gainera herrian izanda ez daukat kehatzeko arazoirik.

#### ■ Zenbat denborarako hartu zaituzte?

Sei hilabeterako, ondoren oposaketak izango dira eta ikusi egin behar zer gertatuko den.

#### ■ Herria ondo ezagutzen duzu, zer da gehien gustatzen

#### zaizuna?

Portasol aldean, bertan jaio nintzen eta.

#### ■ Orokorrean atxabaltarrok ondo zaintzen ditugu kale eta bazterrak?

Denetik dago. Kaleak garbitzen ibili nintzenean astelehentan zikinkeria eta apurketa gehiago egoten ziren, Arlutz ostean batez ere.

#### ■ Libre daukazunean zer egiten duzu?

Txakurrekin ateratzea dut gogoko, bi artzain txakur aleman dauzkat.

#### ■ Ortua ere baduzu?

Bai, gauza haundirik ez baina zertxobait egiten dut bertan.

#### ■ Kirolik egiten duzu?

■ Bai, mendira joatea gustatzen zait eta karatean ere ibiltzen naiz.

#### ■ Non aritzen zara karatean?

Kiroletxera joaten naiz.

#### ■ Zein koloretako gerrikoa duzu?

■ Naranja. Zuria, larua, naranja, berdea, urdina, marroia... daude, eta nirea naranja da.

#### ■ Bizitzeko herri bat?

Aretxabaleta duda barik.



### BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETA

## IRIARTE

Umeen  
denda  
eta  
lentzeria



Durana, 8  
Tel.: 943 79 10 96

BITXITEGIA ERLOJUDENDA

MIREN & ZURINE  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN KONPONKETA

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)  
Tel.: 943 77 13 57



## 10 IBILBIDEA

## ARETXABAleta-MENDIOLABURU-ITSASONDO-OTSUEN ARRATEA-LEIXARGARATE-MAKATZGAIN-URDINGAIN-HIRUERREKETA-GATZAGA

Luzera: 13,6 kilometro - Denbora: 3 ordu 25"

**A**retxabaletatik (246) Mendiolara (430) abiatuko gara. Mendiolako monumentuan Kurtzebarriko bidea hartu eta goruntz egingo dugu. Ezkerretara dagoen Uriaga baserrira (604) doan porlanezko pista alde batera utzi eta bide zaharra hartuko dugu. Mendiolaburuko txabola ikusten dugu-

nean (Ortzadarra margotua duena) Mandobidean sartuko gara (32").

Handik bidea aurrera jarraituko dugu, Asuntzeta edo Itsasondoko erre-kara arte. Puntu horretan beheruntz doan pista hartuz Bolibar aldera joan gaitzke, eta aurreruntz eginez Leixargaratera edo Erlaitzera.


Pista hau hartu eta laister Alzarte-goiti iturria aurkituko dugu bide ertzean (60"). 1992. urteko abuztuaren 29an egin zuten auzolanean, Bolibar, Mendiola, Arkarazo, Eraña eta Leteko auzokideek. Eskoriatzako udaletxeak materiala pagatu zuen. Iturritik laster argi ibili beharko dugu. Urtizarko gainera helden garenean, eskumatara pista batzuk daude, eta hortik jarraituz Mandobidetik edo Markiolatik gora Leixargaratera helduko gara. Baina gure gaurko ibilaldi honetan, pistan gora abiatuko gara. Pista hau jarraitu behar da bukatu artean, Erlaitz azpikaldean bukatzen da. Autoz ezin daiteke Erlaitz ingurura pasa, baina oinez paseotxo bat besterik ez dago(1:50").

Pista honetan gora txabola bat ikusiko dugu. Txabola honek eguzki bidezko plaken bitartez hartzen du behar duen argi indarra. Horixe duzue etorkizuneko etxea.

Behin Arlutz-Erlaitz gainera helduta, Otsuen arratetik aurrera joko dugu, eta hemendik Lapatzaren txabolatik aurrera iturri bat aurkituko dugu. Bertatik Leixargaratera jaitsiko gara (2:20").

Leixargaraten gaudela, Dorletaruntz doan bidea hartuko dugu, eta Irezabalgo gainetik aurrera eginez, Makatzgainera (999) helduko gara (2:35"). Hemen Aitzorrotzetik Eskoriatzara edo antena azpitik doan pistatik behera jarraituz Domina baserrira jaitsiko gara. Hemendik aurrera eginez laster izango gara Dorletan. Beste bi aukera ere baditugu Arlabanera jaisteko.

Lehenengoa, marka zuri eta gorriak jarraituz, Gipuzkoako biran sartzen gara. Marka hauek jarraituz, Usokoatxa tontorretik pasatuz, Gure ametsa jatatxean agertuko gara.



Nafarroa kalea, 4 b.  
Postakutxa 103  
Tfnoa: 943 79 03 34



Mendiolaburuko txabola

Bigarrean, Urkitzako gainean beheruntz doan senda bat hartu behar dugu. Bidezidor honek beheko pista batera eramango gaitu. Pista hau beheruntz jarraituz Iruerreketa agertuko gara (2:55”).

Iruerreketa Deba ibaia jaiotzen den



Alabitako mugarri bat

lekua da. Eta hiru erreka elkartzen dira bertan. Urkitzatik, Elgeamenditik eta Usokoatxatik datozenak.

Hemendik aurrera, erreka ondotik doan bide bat jarraituz, Arlabaneko Tellerixa baserrira iritsiko gara.

Beste bide bat ere bada, eta handik

Domina baserrira helduko gara. Baserri honetan elkartzen dira, Leixargaratetik eta Iruerreketatik datozen bideak.

Dominatik aurrera abiatuz, kaminerokua baserriraino joango gara, Dorletako Ama Birjina dagoen parera (3:25”).



MAKINA  
ERREMITAREN  
INSTITUTUA

INSTITUTO  
DE MAQUINA  
HERRAMIENTA



San Roke Auzoa, 1  
ELGOIBAR

Ta. 943744132

F.943744153

ingenieria@fmh.es

www.fmh.es

## 2001/2002 IKASTURTEA

Makina Erremintaren Institutuak aukera ezin hobea eskaintzen dizu:

# TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA

- ✦ **Enpresarekin lanean** garatutako lanbide proiektua
- ✦ **Lan-kontratu**a prestakuntzaren lehen egunetik
- ✦ **Emaizta erakargarriak**: tituludun **%100ek lanean** dihardute eta horietatik %25ek zuzendaritzako ardurak daramatzate

### BILERA INFORMATIBOA


- ¥ EKAINAREN 13an, asteazkenean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera-baldintzak azaltzeko: 18.30ean Makina Erremintaren Institutuko (IMHko) instalazioak bisitatuko ditugu eta 19.00tan bilera informatiboa hasiko da.

### MATRIKULA EPEA ZABALIK

- ¥ IRAILAREN 4ra arte matrikula epea zabalik.



cesi aquitaine  
poitou-charentes





## Kontu kontari

Batzuk kantatzera etorri eta beste batzuk alde. Zapatuan hitzaren kirola egiten duten bertsolari bi izan ziren herrian: **Jon Maia eta Jokin Sorozabal**. Hauek San Kristobal elkartean aritu ziren bertso-tan, bertan egin zelako Plataformak antolatutako afaria. Afaria ederra egon zen, bera mimatzen eta gozatzen **Alberto Mondragon** arkara-zoarra ibili zen. Perrexilarekin edo barik, argi erakutsi zuen sukaldean lapikoak dantzaz nola jartzen diren. Honek lapikoa sutan jarri eta bertsolari biek adarra jotzeko makina martxan jarri zuten, hari eta honi adarra joz.

Alde egin zuena berriz, **Aretxabaletako abesbatza** izan zen. Bergarara joan zen, bertan azpeitiarrekin batera "El Caserio" opereta kantatu zuten. Bergarako pilotalekuan batu zirenak txundituta gelditu ziren.

Beste batzuk ere alde egin zuten herritik Beasainera, ez kantatzera, baizik eta xakean egitera. Beasaingo jaietako xake azkarreko txapelketan bigarren gelditu ziren atxalbaltarrak: **Fran eta Andoni Miguel, Aitor Alcaide eta Esteban Romero** ere fin ibili ziren. Ekainean beste desafio bat izango dute Tolosan. Ea bada, handik burua txapelaz estalita dakarten!

**Kurtzebarri eskolako nesken futbol** taldea ere bikain aritu da. Gipuzkoako txapelketan bigarren gelditu dira,

baina txapeldun haundi batzuk direla erakutsi dute neska hauek. Zorionak neskek. Astebukaeran gurasoek omenalditxo eskaini gura izan diete, eta partidua jokatuzuten Ibarren gurasoek nesken aurka. Gazteak izan ziren nagusi 7-6 irabazi ondoren.

Beste txapeldun bat ere badugu herrian: **Hector Prieto**. Aurreko astebukaeran Espainiako elbarrutuen txapelketan bocchia modalitatean urrezko domina irabazi zuen beste bi taldekideekin batera. Yolanda Martin donostiarra eta Santiago Pesquero iruñarrarekin batera aritu zen.

Eskerrak batzuk behintzat herriaz gogoratzen diren, izan ere denak alde eta ia-ia herria hutsik gelditu zen astebukaeran. Batzuk joan baina beste batzuk etorri ere egin ziren **Pako Iriondo** omentzera, merezitako omenaldia jaso zuen eguraldi ederrak lagun.

Kirolekin bukatzeko, ni behintzat jo eta su entrenatzen ari naiz, inguruko bazterretan bizikletaren pedalei eraginez batzuetan eta bestetan takarraran, bihar egingo den Triatloirako. Hemendik gonbita egin gura nieke beste emakumeei ere egun horretan nirekin batera parte har dezaten. Animo neska edo andra, guk ere erakutsi egin behar dugu geure marka!!!



## Geure ipuinak

Xabier Etxaniz Erle-ren edizioa ; marrazkiak, Jokin Mitxelena

Pamiela, 2000. –  
(Tamaina ttikia ; 40)

Liburu honetan Xabier Etxanizek ahozko tradizioetik jasotako ipuinak ekartzen dizkigu. Euskalki desberdinetan zeuden ipuinok euskara batuan jarri ditu Etxanizek, edonork ulertzeko moduan, baina beti ere euskalkiaren aberastasuna eta edertasuna gordeaz.

Irakurleak berehala ikusiko du ipuin berdinarene bertsio bat baino gehiago agertzen dela, edo baita ipuin desberdinetan errepikatzen diren zenbait pasarte, edo askotan ipuinok beste kultura batzutatik hartutako ipuinen moldaketak direla.

Etxanizek berak hitzaurrean esaten duenez, ipuin hauek haurrek berek baino, haurrei istorioa kontatuko dioten helduek irakurtzeko egina dago. Horretaz gain literaturaz gozatu nahi duen edonorentzat ere liburu ederra da.

Joseba Lopez de Armentia

## EUSKARA ZUZENTZEN

### HONAKO HAUEK DITUZUE LEHIAKETAKO ERANTZUN ZUZENAK:

- ✓ Nire egunean oparitutako pelota galdu dut!
- ✓ Datorren urteko Karnabaletan pirata joango naiz
- ✓ Badakizu Mariari Jon gustatzen zaiola?

Parte hartzea oso ona izan da, eta erantzun zuzenak askok eman dituzue, baina... hona hemen irabazleak:

**Imelda Blazquez  
Antxon Azkarate  
Azahara Romero  
Garazi Largo  
Amaia Kortabarría**

Sariak jasotzeko Aretxagazetatik pasa zaitzete!  
(Durana, 11n 2. solairuan gaude)

**EKAINA****9 ZAPATUA****■ DEBA GOIENeko I. TRIATLOIA**

Arrasate triatloi taldeak Debagoieneko I. triatloia antolatatu du. Urkulun Korueta inguruan izango du hasiera arratsaldeko 16:00etan.

**■ KONTZERTUA**

Dj jaia izango da gaztetxean 17:00etatik aurrera. Ima eta Txixarra Djak izango dira kontzertua emango dutenak.

**11 ASTELEHENA****■ KONTZERTUA**

Musika eskolako hurrek trikiti kontzertua emango dute 19:00etan Murrukixoko lokalean.

**12 MARTIZENA****■ KONTZERTUA**

Musika eskolako hurrek piano eta flauta kontzertua emango dute 19:00etan Murrukixoko lokalean.

**13 EGUAZTENA****■ KONTZERTUA**

Musika eskolako hurrek kantua korala kontzertua emango dute 19:00etan Murrukixoko lokalean.

**14 EGUENA****■ KONTZERTUA**

Musika eskolako hurrek perkusioa eta talde instrumentala kontzertua emango dute 19:00etan Murrukixoko lokalean.

**15 EGUAKOTXA****■ KONTZERTUA**

Musika eskolako hurrek txistu kontzertua emango dute 19:00etan Murrukixoko lokalean.

**16 ZAPATUA****■ KURTZEBARRI ESKOLAKO EGUNA****16-17****■ PIRINEOETARA URTEERA**

Murrukixoko mendizale elkarteak Pirineoetara urteera antolatatu du. Hiru erregeen mahaia mendia igoko da. Izena ematea Murrukixoko lokalean egin daiteke martizenetan 19:30etik 20:30era, ekainaren 12a baino lehen.

**21 EGUENA****■ TXOTXONGILO EMANALDIA**

Txotxongilo taldeak "Erensugea" izeneko obra antzetzuko du. 5-10 urte bitarteko hurrei zuzenduta egongo da 18:00etatik aurrera herriko liburutegian.

**22 EGUAKOTXA****■ BATZAR OROKORRA**

Udak batzar orokorra egingo du 19:00etan udaletxeko pleno aretoan.

**LEHIAKETAK**

**■ ANDRAMAIXAK IRA-GARTZEKO KARTEL LEHIAKETA** Udaleko kultura sailak Andramaixak iragartzeko kartel lehiaketa antolatatu du. kartelaren neurria 50X70 zmtakoa izango da, disketean ekarriz DINa 3n aurkez daitezke. Kartelak ondorengo testua izan beharko du: Andramaixak 2001/abuztuak 14, 15, 16, 17/Aretxabaleta. Saria 40.000 pezetakoa izango da. Lanak ekainaren 20a baino lehen bidali beharko dira kultur etxera.

**DEIALDIAK****■ BEGIRALEAK BEHAR**

**DIRA** Aretxabaletako Udalak 2001eko irailetik aurrera Aretxabaletan bertan abian jarriko duen "Kadrillategi" izeneko egitasmorako dinamizatzaileak behar ditu. Baldintzak: 20 urtetik gorakoa izatea, euskara menperatzea eta pedagogia, soziologia, gizarte hezkuntza nahiz magisteritza ikasten egon edo ikasketak bukatuak izatea. Interesatuak ekainaren 22a baino lehen bidali cv-a ondorengo helbidera: kuadrillategi Ikerketa eta Aholkularitza/p.k. 155/Lasarte Oria.

**Z I N E K L U B A**

Ekainak 14

**- TAXI DRIVER (EE.UU.)**

Urtea: 1976


Aktoreak: Robert de Niro, Jodie Foster, Albert Brooks

Ekainak 21

**- TORO SALVAJE (EE.UU.)**

Urtea: 1980

Aktoreak: Robert de Niro, Cathy Moriarty, Joe Pesci.



22:30etik aurrera  
kultur etxean  
**ZATOZ!**

## Zorion agurrak



Ibai Zangitu  
Ekainak 1  
Zorionak eta muxu  
haundi bat etxeko-  
en partetik.



Pako Miguel  
Ekainak 4  
Zorionak aitita.



Marisol Beltran de  
Heredia  
Ekainak 5  
Zorionak Alaitz eta  
Eñauten partetik.



Aitor Ayastuy  
Ekainak 8  
Zorionak Otxala  
zelaikoen partez,  
batez ere aita eta  
ama.



Lorea Lasagabaster  
Ekainak 11  
Zorionak etxekoan  
eta Aimarren parte-  
tik.



Leire Altuna  
Ekainak 12  
Zorionak koadri-  
lakoan partetik.  
Tragoaren zain  
gaude.



Martin Berrizbeitia  
Ekainak 17  
(9 urte)  
Zorionak eta muxu  
haundi bat etxeko-  
en partetik.

Sail honetan norbait  
zoriondu gura baduzu  
Aretxagazetara zuzendu  
(Durana, 11) edo eta 943  
79 86 21 telefonora deitu.

## Txistuak • Txaloak

Gure erreka zikin ikustera ohituta gaude. Badirudi erre-  
kara edo eta lurrera edozer gauza botatzeko eskubidea  
dugula. Gaurkoan erreka upel hori bota duenari doakio  
txistua. Baina seguruasko ez da lehena eta ezta azkena  
ere izango. Horrelako ekintzat ekiditu beharra dago.  
Heziketa kontua besterik ez da. Europako herrialdeetan  
hemen baino kontzientziatuago daude ingurugiroaren  
inguruan, eta guk ere hori hartu behar dugu adibide beza-  
la. Gazte-gaztetatik hezitu behar dira umeak, lehenengo  
etxean eta gero eskolan. Beraz, gizarte guztiari eskatu  
behar zaio ahalegintxo bat, gure natura eta ingurugiroa  
hobeto zain dezagun.



## Jaiotakoak

■ Aketza Morales Maiztegi  
Apirilaren 21ean.

■ Janire Altube  
Iturrikastillo  
Maiatzaren 27an.

## Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otxalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

## Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

## Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

## Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



## Ikastolen aldeko partidua

**I**kastolen alde dirua ateratzeko 1970. urte inguruan nesken futbol partidu batzuk antolatu ziren. Hiru partidu jokatu zituzten fotografiako neskek. Lehenengo biak Oñatiko nesken aurka, eta bestea Urretxuren aurkakoa izan zen. Lehena Aretxabaletan jokatu zen, eta partidu ostean luntxa izan zuten Gu-

rean. Partidu horretan 25.000 pezeta batu ziren, ordurako kopuru polita. Kopuru hori ikastolen sorrerarako laguntza izan zen.

Argazkikoak ezkerretik eskumara: **Javier Urzelai, Loli Mayoral, Mila Agirre, Consuelo Zubizarreta, Arantxa Akixu, Aurora Aranzabal, Mari Karmen**

**Olabe, Mari Elena Azkoitia, Elena Arrese, Karmen-txu Usandizaga eta Javier Urreta.**

Behean ezkerretik eskumara: **Mari Asun Mendieta, Esther Letamendi, Itziar Errasti, Ana Rosa Etxebarria, Mila Urzelai.**

Argazkia eta informazioa: Loli Mayoral.



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ALMERA SEDAN. BERDIN DIO NORA ZOAZEN.  
EZ ZARA AUTOTIK JAITSIKO.



Stock-ean dauden autoentzat eskaintza bereziak.  
500.000 pezetako finantzaketa 6 hilabetera %0an.



1.5, 1.8 eta 2.2. Di motorrak.  
2.000.000 pezetatik aurrera (Prever plana barne).

SEE THE CHANGE

**5** URTEKO  
BERMEA  
KM MUGARIK GABE



ALDIBI AUTOAK, S.A.  
ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR  
Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxe. 943 79 65 65.  
aldibi@nortekar.com






Araba Etorbidea 5 •  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**




Araba etorbidea 20 •  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



Andra Mari Auzunea, 1 •  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**



Mitarte 3 •  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**



**50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.**

**Eskerrik asko emandako konfiantzagatik**